

## **Sartzeko baldintzak eta onartzeko irizpideak**

Deustuko Unibertsitateko Hizkuntza Modernoetako Gradu ikasketak edozein pertsona kualifikatuk egin ditzake, adin, sexu, arraza, erlijio, desgaitasun, sexu-orientazio, jatorri edo beste edozein arrazoigatik diskriminatu gabe.

Gradu horretan sartzeko, gaur egun indarrean dagoen maiatzaren 12ko EDU/1247/2011 Aginduan jasotzen den legeria bete beharko da. Agindu horren bidez, aldatu egin da maiatzaren 29ko EDU/1434/2009 Agindua, azaroaren 14ko 1892/2008 Errege Dekretuaren eranskinak eguneratzen dituena. Errege dekretu horrek gradu ikasketen unibertsitateko ikasketen ofizialetan sartzeko baldintzak eta Espainiako unibertsitate publikoetan onartzeko prozedurak arautzen ditu.

Kontuan hartuko da, halaber, UNIBERTSITATEEN IDAZKARITZA NAGUSIAK Gradu ikasketen ofizialetan onartzeko prozedurei buruz igorritako OHARRA ere, Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak (LOMCE) Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako erregulazio berriekin bat etorritik, 2014ko apirilaren 3an emana.

Legeria aldatu ahala eguneratuko da. Indarrean dagoen araudiaren arabera, honako kasu hauetakoren batean daudenak sartu ahal izango dira ikasketen horietara:

1. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 37. eta 50.2 artikuluetan aipatzen den batxiler titulua dutenak.
2. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 38.5 artikuluan aurreikusitako Europar Batasuneko estatu kideetako edo Espainiarekin gai horri buruz nazioarteko hitzarmenak sinatu dituzten beste estatu batzuetako hezkuntza sistemetakoa ikasleak, beren herrialdean unibertsitatean sartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte.
3. Atzerriko hezkuntza sistemetatik datozen ikasleak, jatorrizko titulutik Espainiako batxiler titulura homologatzeko eskaera egin ondoren.
4. Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoaren 44., 53. eta 65. artikuluetan aipatzen diren Lanbide Heziketako eta Irakaskuntza Artistikoetako goi mailako teknikari tituluak dituztenak edo Kirol ikasketetako Goi Mailako Kirol Teknikari ikasketak dituztenak.
5. Hogeita bost urtetik gorako pertsonak, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren hogeita bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoak.
6. Laneko esperientzia edo esperientzia profesionala egiaztatzen dutenak, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 42.4 artikuluan aurreikusitako prozeduraren bidez, aurrekoa aldatzen duen apirilaren 12ko 4/2007 Legeak emandako idazketan.



7. Berrogeita bost urtetik gorakoak, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 42.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, aurrekoa aldatzen duen apirilaren 12ko 4/2007 Legeak emandako idazketan.

Era berean, Hizkuntza Modernoetako Gradu ikasketak egin ahal izango dituzte honako baldintza hauetakoren bat betetzen dutenek:

- Gradu unibertsitateko titulu ofiziala edo baliokidea dutenek.
- Unibertsitateko ikasketen aurreko antolamenduko titulua edo baliokidea dutenek (unibertsitateko diplomadun, arkitekto tekniko, ingeniari tekniko, lizentziadun, arkitekto edo ingeniari titulu ofiziala dutenek).
- Atzerriko unibertsitateko ikasketa partzialak egin dituztenek edo, ikasketak amaituta, homologazioa Espainian lortu ez eta Espainiako unibertsitate batean ikasketak jarraitu nahi dituztenek. Kasu horretan, ezinbestekoa izango da dagokion unibertsitateak gutxienez 30 kreditu aitortu izana.